


LetMeFeel

app-a



JoTaPoto

Aiora Villarrubia, Jone Sagarzazu, Maria Harris eta Hiart Perez-Karkamo

SARRERA: ZEIN DA GURE PROPOSAMENA?

Gure enpresa aplikazio bat da, **LetMeFeel aplikazioa**. LetMeFeel zure momentuko **sentimenduak** edo eguneko momentu esanguratsu bat idazten edota ahoz kontatzen (atxikituta duen mikrofonoaren bidez) duzun app-a da, eta horren arabera, app-ak zure sentimendu edo pasarteekin bat egiten duen **abesti bat** gomendatuko dizu. Hau da, abesti horrek zure pasarte edo sentimenduekin bat egiten duten letrak eta doinua izango ditu. Gure aplikazioak, zure sentimenduen eta abestiak kontatzen duenaren arteko harremana inteligentzia artifizialaren bidez egingo du.



Abesti hori aplikazioa jaisterakoan agertuko zaizun galdetegian hautatutako zure gustu musikalen arabera izango da. Galdetegi horretan izena, abizena, emaila, adina eta gustu musikalen inguruan galdetuko da, kontua sortu ahal izateko.

Eguneko abesti horiek **egutegi** batean gordeko dira, idatzi edo kontatu duzun testuarekin batera.

Aplikazio hau **sare sozial** bat ere izango da, norberaren eguneko abestiak partekatuko dituenena. Lagunak gehitu ditzakezu eta hauek zure abestiari buruz iruzkinduko dute (lagunek ezingo dute zure testua edota audioa ikusi, intimitatea mantentzeko). Horrez gain, abestia agertzen zaizun momentuan zure abesti bera zenbat pertsonak jaso duten agertuko zaizu.

Aplikazioaren alde ona da, bi astean behin, zurekin abesti komun gehien dituenarekin kontaktua izan ahalko duzula **chat** bidez, eta zuen egoera kontatu ahalko diozuela elkarri, azkenean biek sentimendu eta egoera antzekoak izan dituzuelako bi aste horietan zehar. Beraz, adiskide onak egiteko ere aplikazio paregabea da!

Gure enpresaren helburu nagusia gazteak beren sentimenduen inguruan pentsatzera eta hauek adieraztera bultzatea da, sentimendu edo arazo guzti horiek norberaren barruan gordetzeak ez baitu eragin onik pertsonen osasun mentalean. Honela, helburu gisa, osasun mentaleko arazoak murriztea ere badauka gure enpresak.